

# Baleike

Zumaiako herri  
aldizkaria.

9. zbkia.

1995eko otsaila.

100 pzta.



## Itsaso nahasia arrantzaleen artean

**Elkarrizketa:**

**Joxe Manuel  
Manzidor  
"Budy"**


**Ze berri:**

**Barrako obrak  
geldituarazi  
dituzte**

**Kirolak:**

**Herriko  
taldeak pattal  
samar dabilta**






(Javier Carballok utzitako argazkia)

*Argazki eder honetan garai bateko arrantzaleen emazte eta bestelako emakumeak ikus daitezke, lanean gogor, despeska egiten kate lanean. Atzean Pulpo eta Kopraia ikusten dira, baina oraindik ere Bankorik ez da ageri; dirurik ez al zegoen ordurako?*

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**



ZUMAIako INSTITUTUA  
Aita Mari Auzategia, z/g  
20750 - ZUMAIA  
86 08-09/86 08 10

Zumaia Udalak diruz  
lagunduriko aldirakaria





**BALEIKE**

**HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea  
tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea  
**ZUMAIAKO  
GAZTE  
BATZORDEA**

lan taldea  
**Iratxe Aizpurua  
Esther Martinez  
Itziar Manzisidor  
Xabier Azkue  
Igor Uranga  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta**

kolaboratzaileak  
**G.E.G., Natur taldea,  
Miriam Romatet,  
Aitor Leiza, Izar Martin,  
Imanol Manterola, Ander  
Hormazuri, Jon Manzisidor**

publizitatea  
**861056 tlf.**  
inprimategia  
**Gertu Koop. E.**  
(Zubillaga - Oñati)  
tirada: **600 ale**  
Lege gordailua: **SS-405/94**

**BALEIKEk ez du bere gain  
hartzen aldizkarian  
adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.**

|   |    |
|---|----|
| <b>Argazki Zaharra</b> .....                        | 2  |
| <b>Hitzaurrea</b> .....                             | 3  |
| <b>Iritzia: Bedua babesteari buruz</b> .....        | 4  |
| <b>Gai Librean</b> .....                            | 5  |
| <b>Ze Berri?: Barrako obrak geldituta</b> .....     | 6  |
| <b>Elkarrizketa: Joxe Manuel Manzisidor</b> .....   | 9  |
| <b>Erreportaia: Gure arrantzaleen egoera</b> .....  | 11 |
| <b>Inkesta: San Balentin eguna</b> .....            | 15 |
| <b>Komikia</b> .....                                | 16 |
| <b>Natura: Azterkosta 94</b> .....                  | 18 |
| <b>Sexualitatea: Sex Pol manifestua</b> .....       | 20 |
| <b>Izerdi Patsetan: Herriko taldeen berri</b> ..... | 22 |
| <b>Kultur agenda</b> .....                          | 25 |
| <b>Musika: Esan Ozenki</b> .....                    | 28 |
| <b>Denborapasak</b> .....                           | 30 |
| <b>Merkatu txikia</b> .....                         | 31 |
| <b>Lehiaketa</b> .....                              | 32 |

**H**itzaurrea

*Azken denboraldian urak nahastuak datoz, baina ez dirudi arrantzaleen onerako denik. Arrantza burruka bihurtu den garai hauetan, gure arrantzaleek laino ilunak ikusten dituzte itsasoaren etorkizunean, hau amaierarik gabeko supermerkatua dela uste dutenak baitira burruka irabazten ari direnak. Geure portu inguruko urak ere ez omen daude batere garbi, nahiz eta batzuk arrain handien bizi toki izango dela esanaz aritu azken hilabeteetan. Lehorrera etorrira, Joxe Manuelekin izandako elkarrizketa irakurtzeko aukera dezue. Gure kirol taldeek lehen itzulian egindako lanaren balorazioa ere hortxe duzue. Eta horrekin batera noski, betiko kontuak, ohitura onak mantentzekoak dira eta. ez da harritzekoa gauzak nola dauden ikusita kaiuak ere lehorrera etortzea ... garai hauek pasa arte behintzat.*

**PREMIAZKO TELEFONOAK:**

|                           |          |                          |          |
|---------------------------|----------|--------------------------|----------|
| Kultur Etxea .....        | 86 10 56 | Ludoteka.....            | 14 32 64 |
| Polikiroldegia.....       | 86 20 21 | Tren geltokia.....       | 86 11 27 |
| Gurutze gorria.....       | 86 10 93 | Taxi geltokia.....       | 86 13 60 |
| Udaletxea.....            | 86 02 50 | Bake epategia.....       | 86 00 67 |
| Gizarte Zerbitzuak.....   | 86 22 00 | Posta.....               | 86 15 00 |
| Osasun zentrua.....       | 86 08 62 | Udaltzaingoa.....        | 86 18 70 |
| San Juan Egoitza.....     | 86 12 73 | Pilotalekua.....         | 86 2172  |
| Pentsiodunen Egoitza..... | 86 17 00 | Larrialdi zerbitzua..... | 46 11 11 |
| Musika eskola.....        | 86 11 83 | Informazio sexuala.....  | 32 04 44 |



# BEDUA BABESTEARI BURUZ

Dirudienez, ez dakigu nola baina Beduak babes ofiziala izango duela jakin degu, natura eta etnografia aldetik hainbeste ezaugarri berezi dituen zonaldea, alegia.

Natura eta historiaren zaletuok beraz, pozik egoteko arrazoia badegu. Hala ere, Ricardo Peña alkateak bapatean azaldu duen interes honek ez digu usain goxorik piztu. Santixo ingurua ahaztu eta diskriminatu nahian (honek ere babes ofizial jaso behar duenik ez dago zalantzarik), Bedua proposatzen dute babesgune bakarra.

Zumaian beste inorekin ez kontsultatzea oso tristea da, alde batetik bakarrik jokatzuz, "etsaiak" bezala kontsideratzen gaituen talde honekin ezertarako kontatu gabe.

Gurekin kontaktuan jarri izan balira, agian jakingo zuten bi zona horien balore ekologikoak berdintsuak direla. Estuario berdineko leku ezberdinak dira, honegatik natura eta botanika arloetan bereizgarritasun ezberdinak dituztelarik. Ondorioz, Urola ibaiko estuario tramo guztia babestu beharko litzateke eta ez gune konkretu bat bakarrik.

Testuinguru honetan, Zonalde Hezetako Lurralde Sektorialaren Egitasmoko



Aurrekaria, GRAMA S.A. enpresak idatzirikoa Euskal Gobernuko Ingurugiro Sailari, bertan argi eta garbi baieztatzen da "Urola aldeko naturguneak euskal ibaien artetik garrantzitsuenetakoak direla".

Honekin batera, bertan dauden ezaugarrien interesgarritasuna nabar-mentzen dute. Eta baita bere dibertsitatea ere: dunen barra, lohiak,... Besteak beste, Aurrekari honek ondorengo bereizgarritasun hauek azpimarratzen dituzte:

-Patrimonio naturalaren aberastasuna. Zentzu honetan, Santixoko landaretza, faunari garrantzi handia ematen diote.

-Interes zehatzeko lekuak: Santixoko entsenada, Beduako irlak eta Gorostiagako ipar ertza.

Era berean, lan honetan zonaldearekiko arrisku, eraso eta mehatxuak aipatzen dira: gehiegizko industrializazioak, kirol portua egiteak dakarren estuarioaren birmoldaketa sakona, Santixoko paduraren deuseztapenerako proiektua etab.

Santixo eta Beduaren arteko bereizketarik ez da azaltzen inolaz ere. Bedua deklaratzeko zonaldeko babesgune bakarra, modu bakar batean ulertzen eta interpretatzen degu: aurpegia garbitzea geure patrimonio naturalarekin izugarritzko triskantza egin ahal izateko. Gainera, kirol portuaren proiektua gehiegikeri bat dela ez dute onartu nahi, eta ezta honek Santixoko inguruneari ekar lekiokkeen kaltea ere. ■



Beduako ingurune eder hau babesteko ezer gutxi egin da orain arte.

**LANDARE  
LOREDENDA**  
Baltasar Etxabe, 5  
Tel. 862472 ZUMAIA

**ZUMEA  
TABERNA**

Erribera kalea, 2  
Telefona: 861125  
ZUMAIA

**Gastedi  
kirolak**

Kirol jantzirik egokienak  
preziorik hoberenetan

Etxezarreta 9 - Zumaia



## SANTA AGEDA



Jon Maia

Santa Ageda badatorrela jakingo dezue, ala? nik esan nahi det ohitura baina zaharren kontu bat ez dala goizean goizik baserrietan tririli eta trarala gu behintzat pozik ibiltzen gera nahi dunak galdu dezala

Gazte eta zahar kantu ta kontu jan, edan, parre ta dantza euskaldunaren ezaugarriak erakutsiz kanporantza herri zapaldu honetan lehendik badugu nahiko arantza batzen gaituen kontu honetan jar dezagun esperantza

## Baleike (productions)

### Josebe Ormazuri

Desertu ertzeko herri galdu batean bizi zen heroia. Bazituen barne.burrukak, baita ezin egonak ere, eta herria behin eta berriro zeharkatu zuen bere ustez etsairik handienak zirenen kontra buru-belarri aritzeko. Ahalegindu zen eta, zoritxarrez, garai batean pistolero abilak izandakoak mozkor, jokuzale eta etxegabe bihurtuak ziren orain. Halere, borondatea nagusi, banan bana denak biltzea lortu zuen eta 7 IZUGARRIen taldea sortu zuen Mc Azkue delakoak..Zeregina ez zen makala, baina zer galdu gutxi zutenez...

Hasi ziren herriko biztanle nagusi ziren indioen hizkuntza zabaltzen, eta baita bertako pertsonaia eta istorio interesgarrienak ezagutzera ematen ere, eta baita lortu ere!

Halere, beren pistolero izanak ez zien lasai bizitzen uzten, ez baitziren horrelako ekintzetarako jaio. ez baitzekiten pistolak gordeta bizitzen: odolaren usaina behar eta, 7 IZUGARRIek, bertako talde indartsuenaren kontra aritzea erabaki zuten, Xemy thawroen taldearen kontra, alegia.

Hura hanka sartzea! Ez, ez zaie sekula ere ahaztuko zorigaitzeko egun hura, ez baitzituzten indarrak ondo neurtu, eta orain 7 BARREGARRIak bezela ezagutzen ditugun horiek beren biziko jipoia jaso zuten. Batetik, filmeetako ereduak beti betetzen direlakoan Xemy thawroen banda gaiztotzat hartu zuten eta...baleike. .

Bestetik hauek akabatutzat jo zituzten eta hau, jaunak, ez leike!! Nola jo akabatutzat herriak eman dituen heroi eta pertsonaia ospetsuenak? Nolaz baztertu hauen abildade eta indarrak? Eta, okerrenea dena nolaz ahaztu herriak dien miresmena eta adorazioa?. Xemy thawroen banda izan da zuen akatsa, eta hau, noizbait, gaindituko al duzue? Baleike.



**Foto Gar**  
Aldizkari,  
egunkari  
eta opariak  
  
Erribera kalea 21

**Huntza, o.k.**  
  
DISEINUA  
MANTENUA  
ERABERRITZEA  
ZUHAITZ,ZUHAIXKA  
ETA FRUITONDOEN  
KIMAKETA  
lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

**Itzurun**  
**ATEAK-PUERTAS**  
Era guztietako  
egurlanak  
  
Itzurun zuhaitzbidea  
Tlf: 861565 - 143446



# Barrako obrak geldiarazi ditu Euskal Auzitegi Gorenak

**Obrak honek ingurugiroan izango duen eragina aztertu behar lukeen ikerketa ez egiteagatik izan da**

Auzitegi gorenak Josu Urangak Zumaia Biziriken ordezkari moduan aurkeztutako errekurtsioa onartu zuen, urtarrilaren 4an hartutako erabakian. Errekurtsio honetan, obrak gelditzea eskatzen zen, legeak esaten duenez, aurretik ingurugiroan izango duen eragina neurtuko duen ikerketa bat egitea beharrezkoa baita, eta kasu honetan ez delako horrelakorik egin.

*Baleike*

Euskal Gobernuaren aurka aurkeztutako bigarren errekurtsio hau (lehenengoa ez zuten onartu) Euskal Justizia Auzitegi Gorenak onartu egin du, ekainaren 28an emandako 1302/86 Dekretuan oinarrituta. Sententzian irakurri

degunez, dekretu honek ingurugiroarekiko eraginaren ikerketa eskatzen du zenbait kasutan. Kasu hauen barnean, portu komertzial, nabegazio bide, barne nabegazio portu edo ta kirol portutan egindako obrak daude. Zumaiaiko

**Ricardo Peña:**  
**"Erabaki honek galera garrantzitsuak sortuko ditu, hondar ugari ekarriz ibaiaren kanalera"**

portuarentzako aurkeztutako proiektua kasu hauen barnean dagoenez, beharrezkoa zen obrak hasi aurretik aipatutako ikerketa hori egitea.

Hau ikusita, eta proiektuarekin batera Garraio eta Obra Publikoentzako Sailak ikerketa hori aurkeztu ez zuenez, Auzitegi Gorenak obrak gelditzea agindu du ikerketa hori egin eta aurkeztu arte.

Bestaldetik, eta normala denez, erabaki honek erantzun ezberdinak sortu ditu interesatuen artean. Zumaiaiko alkatea den Ricardo Peñak nahiz eta erabakia onartu, bere ustez galera garrantzitsuak sortuko ditu, hondar ugari ekarriz ibaiaren kanalera. Ondorioz, "Astilleros Balenciagara joan nahi duten itsasuntzientzat zailagoa izango da iristea" alkateak esan zuenez.



*Ezker aldeko muturra ia bukatuak dago.*

Auto - Konponketak

**ELKAR**



**PEUGEOT**

Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA    Telefonoa: 860201

Kalitateko haragia nahi baduzu,  
labeldun haragia erosi



Basadi auzategia 4B  
Tif: 862081





**Zumaia Bizirik:**  
**"Obra hauek**  
**gelditzearen**  
**arrazoi nagusia**  
**proiektuaren**  
**arduradun**  
**politikoen**  
**intransigentzia**  
**datza"**

*Ikerketa egin arte behintzat geldituta egongo dira lanak.*

Urokai Elkarteak, "Zumaia garai batean izandako protagonismoa berreskuratzearen alde" agertu zen eta kirol portuak "herriko ekonomiarengan izugarriko eragin biderkatzailea izango luke" azaldu zuen, bere lehendakaria den Jesus Aguirrezabalagaren ahotik.

Zumaia Biziriken ustez berriz, obra hauek gelditzearen "arrazoi nagusia proiektuaren arduradun politikoen intransigentzia datza, beraien artean, Josu Bergara Sailburua, Portuen Zuzendaria zen Olabarria jauna eta alkatea, beraien jokaera irregularra zela bazekiten-eta". Honetaz gain, talde honek adierazi duenez, "beraiek dira egoera honen arduradunak. Proiektuak herriaren benetako beharrak interes pertsonalekin nahastu ditu. Herritar guztiek onartutako eta

beharrezkoa zen obra bat, interes pribatua duen proiektu baten garapenarekin baldintzatu du" azaldu du Zumaia Bizirik.

94ko urte hasieran ekin zioten obra honi, eta aurtengo urri edo azaroa aldera bukatzeko asmoa zuten. Denok dakigunez, gaur egun nahiko aurreratuta dago obra, kanpoko barra (320 metrotakoa) bukatu eta eskoilerakoarekin (200 metrotakoa) hasteko zeudelarik... Auzitegiaren agindu hau iritsi arte.

Ezaguna da baita ere, 2.000 milioiko aurrekontu duen proiektu honek gure herrian sortu duen eztabaida. Udal gobernuarentzat herriaren etorkizunarentzat ezinbestekoa den bitartean, herriko sektore batek ingurugiroan izango duen eragin kaltegarriak salatu ditu. Horrela, 1994ko uztailaren 22an Auzitegi berdinak Zumaia Biziriken errekurtsioa ez zuenean onartu,

bazirudien proiektuak bidea librea zuela eta bere defendatzaileak arrazoia zutela. Orain berriz, erabaki honekin Zumaia Biziriken posturak indar eta sinesgarritasun handiagoa hartzen du, agerian jarriz instituzioen jokaera okerra.

Bukatzeko aipatu behar da Auzitegi Gorenaren erabaki honekin batera, Portu Zuzendaritzan aldaketa bat eman dela, Olabarria jaunaren ordean, Jose Ramon de la Fuente delarik zuzendari berria. ■


**Kirol portuaren proiektua jasotzen duten VI tomoak udaletxean daude nahi duenarentzat ikusgai. Enmiendak sartzeko epea bukatu ondoren, baleude, hauen berri ematen saiatuko gera aldizkari honetan.**

**ΔΙΣΜΑΝ-ΚΟΣ S.L.**

**SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALA**

Iraeta  
 auzoa z/g  
 Aptdo. 78

TF/Fax: 14 81 24  
 20740 IRAETA -  
 ZESTOA



**NIKOL-ENE**

taberna

**Amaiako plaza Tfnoa. 861440**





**Ismael Manterolari epaiketa egin ondoren, orain beste zumaiar intsumiso bati heldu zaio epaitegira joateko txanda, Juan Luis Blancori haun zuzen ere. Hasiara batean, aurreko urtean epaitu behar bazuten ere, azkenean otsailaren 14ean izango da. Hau dela eta, epaiketa honen inguruan zenbait mobilizazio egiteko asmoa dago, eta hilaren 14ean ere autobusa antolatuko da seguruena epaiketara joateko. Guztiok mobiliza gaitezen eta erakutsi diezaiogun gure elkartasuna. Ez dadila Juan Luis bakarrik sentitu.**

## Kirol portuari buruzko kanpainaren balorazioa

Aurreko hilabetean Zumaia Bizirik antolatutako bileran, kirol portuaren inguruan jendearen iritzi ezberdinak entzuteko aukera izan zen. Bi kezka nagusi izan ziren batez ere tratatu zirenak: batetik, kirol portua egiteak Astillerotan izan dezakeen eragina eta bestetik, Zumaia lurretan eman daitekeen aktuazioa.

Astilleroen kasuan, kirol portuarekin bere egoera ez zela gehiegi aldatuko pentsatzen zuen gehiengoak, ez zuela gainera errentabilitate handiegirik suposatuko. Herriko lurri buruz berriz, kezka berezi batzuk azaldu zuten herritarrek: etxebizitzaren garestitzea, espekulazioak e.a. izan ziren denon ahotan egon ziren hizpideak. Beraz, jendearen erantzuna oso ona izan dela esan daiteke.

## LABURRAK

### Kartoia ibaian

Lehenengo urtarrilaren 30an bilera bat egin zen udaletxean, Ingurugiro arduradun baten aurrean, angula-arrantzale batek sartutako salaketa aztertzeko. Honen arabera Urola ibaian eta batez ere Bedua inguruan kartoi ugari dago hondoan; azkenaldian anguletan ibili direnek nahiko lan izaten omen zuten batzutan baiak altxa ahal izateko.

Arrazioa Aizarnazabal aldeko papelera batek egindako isurketetan egon daiteke. Salaketa jarri zuenak frogatzea baiekin hartutako poltsakada bat kartoi eraman zuen udaletxera.

Salaketa jarrita dago eta ikusi egin beharko da zein neurri hartzen diren, horrelako ezer gehiago gertatu ez dadin.

### Txakur abandonatua

Urtarrilaren 13an, artzain euskaldun arrazako txakur bat jaso zuten udaltzainek Bedua inguruan. Astebete beranduago, Zumaia al baitariak txakurra hil zuen, udaltzain-buruaren aginduz inolako gaixotasunik ez zuen arren.

Kalean aurkitutako txakurra zaintzeko betebeharra izaten du Udaletxeak epe batez (hilabete inguru). Nagusia topatzeko ere herriko kale eta komunikabideetan oharra uzteko obligazioa du. Kasu honetan ordea, ez da horrelakorik egin.

Ez da hau herrian gertatzen den lehendabiziko kasua. Hemen-dik dei bat luzatzen degu jendeak erantzunkizun gehiago har dezan animaliekiko eta ez ditzatela kalean botata utzi trapu zahar baten antzera.

**Arkupe**  
Okindegia  
eta gosariak  
Kale nagusia, 2

**ZUMAI A**

**STOP**

**AUTO-ESKOLA**

- \* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- \* Praktika eta azterketak Azpeitian
- \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea  
861018  
20750 ZUMAI A



## JOXE MANUEL MANZISIDOR "Batzutan kajero konplejoa dudala iruditzen zait"

Nork ez du ezagutzen oraingoan elkarrizketatu degun pertsonaia hau? Astegunetan hor ibiltzen da herrian alde batera eta bestera, kupoiak saltzen eta zortea banatzen. Asteburutan ere ez da etxean gelditzen, eta kuadrilarekin gustora ibiltzen da herriko kaleetan. Baina, ba al zenekiten EPAn ikasten ari dela? Pixu batean bakarrik bizi dela? Elkarrizketa honekin nolako pertsona ona den erakutsi nahi dizuegu, horretarako berarekin egotea egokiagoa den arren.

*Baleike*

Esandako orduan agertu ginen eta oso gustora ireki zizkigun Joxe Manuelek bere etxeko atea. Gusto haundiz apaindutako etxea du eta horma gehienetan bere lagun "artistek oparitutako artelanak daude eskegita. Lan egiteko gelan sartu eta elkarrizketari hasiera eman diogu.

**Gustoko lana al dezu ONCEko kupoiak saltzea?**

Nahiko lan gogorra da; adibidez jendea kioskora joaten denean batzuk ez didate agurtu ere egiten, eta beste batzuk hitz egiten didate baina gutxi. Gero baita tabernetan ibiltzen naizenean jende nahiko ezjakinarekin egotea

**Musika entzutea gustatzen zait, eta kuadrilan ibiltzea ere bai**


tokatzen zait. Kupoiak eman eta dirua ematen didate; batzutan kajero konplejoa dudala iruditzen zait.

**Gogorra izan al zen hasieran lan honetan hastea?**

Nik hasieran ez nuen kupoirik saldu nahi, jendeari eskean ibiltzea

zela iruditzen zitzaidan. Amak ez ninduen behartu, baina pixkanaka konbentzitu ninduen. Honetan eta beste gauza guztietan amak izugarrizko laguntza eman didala aipatu nahi nuke. Orain, ordea, ez zait iruditzen eskatzea denik. Hasieran jendeak penagatik erosten zidan, eta horrek amorrua ematen

**Hasieran jendeak penagatik erosten zidan kupoa**



*Jendeak hobeto tratatzea gustatuko litzaioke Joxe Manueli.*

**EGOKI  
ERLOJU DENDA**

E: Gurrutzaga plaza, 6  
ZUMAIA

**JZETA**  
orrastegia

Urumea 6  
Tlf: 862083






zidan.

**Ikasten ere hasi zerala jakin degu.**

Bai, garbi daukat-eta lana ez dela dena; beste gauza asko daude. Orain dela 2 urte hasi nintzen ikasten helduentzako eskolan (EPA) eta hau neretzako izugarrizko laguntza izan zen, kulturaz jabetzen ari bainintzen. Ikasten hasi nintzen, baita ere, jendea konturatu zedin nahiz eta ezin dudan hitz egin, haiek bezela pentsatzen dudala. "Graduadoa" atera ondoren, gainera, ikasten jarraitzeko asmotan nabil.



Ordenagailua erosi zuenetik jo ta ke dabil lanean.

**Aspalditik genbiltzan Minusbaliatu Taldea sortu nahian**

Zaila gertatzen zait besteen martxa segitzea, baina aurrerapenak egin ditudala igertzen det. Fotokopiak ematen dizkidate batez ere, baina apunte batzuk eskuz ere hartzen ditut. Hilabete da ordenagailua erosi dudala, lehen idazteko makinarekin ibiltzen bainintzen.

**Jendearekin komunikatzeko nola moldatzen zera?**

Hizkiak, silabak eta zenbait hitz dituen taula batekin ibiltzen naiz. Lehen makina batzuk izan

nituen, baina kopeteraino nengoen haiekin; oso motelak ziren eta jendeak ez zidan kaso haundirik egiten. Taularekin atentzioa jarri behar dute eta hobeto moldatzen naiz.

**Afizioaren bat ere izango dezu, ezta?**

Musika entzutea gustatzen zait eta kuadrilan ibiltzea ere bai. 18 urte nituenetik zenbait kuadrilatan ibili nintzen; hasieran

ez nintzen oso gustora sentitzen, duela 2 urte orain nerekin ibiltzen den taldea topatu nuen arte. Hasieran beldur pixka bat ematen zidan, baina orain haien artean beste bat naizela konturatzen naiz. Kuadrila honek, gainera, beste jende asko ezagutzeko bidea eman dit. Eskurtsiotara eta antzekotara joatea ere asko gustatzen zait.

**Bizikletan ere abaila ederrean ibili ohi zera ...**

12 urtekin edo ikasi nuen, auzoko ume baten 4 gurpileko bizikletan. Lau bizikleta izan ditut guztira; behin Donostian lapurtu egin zidaten hauetako bat, baina gerora azaldu zen. Orain nere lanerako tresna da, herrian alde batera eta bestera ibili behar izaten baitut. Asteburutan, ordea, karroan

**Denak kezkatzen nau: kirol portuak, intsumisioak, ...**

**Surf**  
Torre Luzea, 2  
Tel. 83 50 24  
20190 ZARAUZ

Erribera, 7g  
Tel. 86 23 69  
20750 ZUMAIA

• SUKALDERAKO ALTZARIAK  
• ELEKTROGAILUAK  
• BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8  
Telefona: 861694

ARRAIN ETA MARISKOAK

**7 MARES**

BARAZKIAK  
ETA  
AURREZ  
PRESTATUTAKO  
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK



ibiltzen naiz, kuadrilan jendearekin ibiltzeko komodoagoa da-eta.

## Pixu kontuak

**Nola erabaki zenuen pixu batean bakarrik bizitzen jartzea?**

Hasieran dirua inbertitzeagatik erosi nuen. Obrak bukatutakoan etxera etortzen nintzenean gustora sentitzen nintzen; orain dela 5 urte izan zen hori. Hasieran uste nuen etxekoek ez zidatela utziko, minusbaliatua izateagatik, baina etxean baiezkoa eman zidatenean zeharo harritu nintzen, sorpresa handia izan zen neretzat.

Pixkanaka prestatzen hasi nintzen, orduan. Obra egin nuenean nere gusto eta beharretara egokitu nuen; beste minusbaliatuekin ere hitz egin nuen pixka bat orientatzeko: atea zabalak jarri nituen, dutxa egokitu, eta abar.

**Jatorduak egiteko ondo moldatzen al zera?**

Jan gurasoen etxean jaten det; garbiketak eta etxeko lanak egiten, berriz, emakume batek laguntzen dit. Bi gauza hauekin, bakarrik bizitzea lortu det. Minusbaliatu gutxi dira hori lortzen dutenak eta gustora nago.

**Neretzako ikasten hastea izugarritzko laguntza izan zen**

**leize**  
**TABERNA**

Juan Belmonte, 6  
Tel. 860415 ZUMAIA



*Ezer tokatzen ez denean izugarriak entzun behar izaten ditu*

**Minusbaliatu Taldeko partaidea zerala badakigu. Zer esan diezagukezu taldeari buruz?**

Aspalditik genbiltzan taldea sortu nahian eta duela 6 hilabete sortu genuen azkenean, gure kezkek eta beharrak zein ziren ikusi eta egindako eskakizunak kontuan hartu zitezten. Adibidez oztopo arkitektonikoen kontua hor dago; azerak eta holakoak ari dira txukuntzen, baina oraindik asko falta dena ondo jartzeko.

**Zein dira buruan dabilzkizun kezkek?**

Denak kezkatzen nau: kirol

portuak, intsumisioak, ... Gizartea justua izatea gustatuko litzaidake.

**Zein dira gustora egingo zenituzkeen hiru gauza?**

Gehiena hitz egiten jakitea gustatuko litzaidake, baina ...Aizkorrira igotzeak eta gitarra jotzen jakiteak izugarritzko ilusioa egingo lidake.

**Elkarrizketa amaitu eta irtetzerakoan horman olerki bat ikusi genuen, marko batean, bukaeran honela zioena: "Zorione-koak naizen bezela maitatzen eta errespetatzen nautenak".** ■

**Amertze**  
Foto

Erribera Kalea, 6  
Telefonoa: 86 17 07  
Fax: 86 17 07  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

**Xanti**  
ALTZARIAK

Amaia plaza, 7  
Tel.- Fax: 862385  
20750 ZUMAIA



# MARRAZO UGARI ARRAIN GUTXIREN ARTEAN

Hemengo arrantzaleen egoera oso larria da

Aurreko urtean itsasoan izandako tira-bira guzti hoiendoren, herriko bi arrantzalekin honetaz eta arrantzaren inguruko beste hainbat kontuetaz apurtxo bat gehiago jakin nahi izan degu. Itsasgizon hauen iritziz, gauzak ez badira asko aldatzen, arrantzaren etorkizuna ilun xamarra ikusten dute.

*Baleike*



*Aurtengoa ez omen da batera tenporada ona izan gure Gloriosorentzat.*

gehiegi iraungo. Gloriosokoak orandik, Zumaiako kofradian aguantatzen ari dira baina bertako arrantzalea den Iñaki Osa "Pordi" k esan digun bezala "zumaiarrak geralako segitzen degu herrikoan, zeren bestela papeleo guztia Getariako kofraian egiten degu".

## Glorioso San Telmo

1972. urtetik inguruko eta urrutiko itsasoetan barrena dabilen herriko arrantza-untzi bakarra degu "Glorioso San Telmo". Hamalau arrantzalek osatzen dute tripulazioa: bi santoñarrak, beste bi mutrikuarrak, Zamorako bat eta gainontzekoak zumaiarrak.

"Pordi" eta "Kantak" adierazi digutenez "erdi mailako untzia da Glorioso. Ez oso ona ezta eskasa ere; nahi bai punta-puntakoa izatea!". Onenak diren itsasuntziek hartzen dituzte arrain gehien eta saldu ere gehien saltzen dutenak dira.

Hauek egoista xamarrak omen dira, berentzako hartzen baitute dena. Arrantzale prestuak eta informazio aberatsa izateaz aparte, "arrain asko dagoen lekua topatzen dutenean ez diote inori esaten, besteok egiten degun bezela. Handik egun batzuetara jakiten degu zein leku den eta bertara heltzen geranerako, ia arrainik ez



**Azkue Autoak**

Estazioko kalea, 19      Telefonoa: 861433  
20750 ZUMAIA      Fax: 861067

**BALEZULO**

**INPORTATURIKO  
ERRAOPA ETA ARTISAUTZA**

INDIA- NIKARAGUA  
GUATEMALA

**Basadi, 3      ZUMAI**



Erribera kalea      Telefonoa: 861523  
**ZUMAIA**



da geratzen. Horrelakoetan getariarrak errege dira".

## **Bolanten arazoa konpondu ezean, indarraren erabilpena eguneroko gauza bihurtu daiteke**

Itsasoan gauzak asko aldatu behar direla azaldu dute, jendeak gaur egun duen mentalitatearekin ezin dela itsasora irten. "Euskaldunak gera okerrenak, arrantza mundua gogortzen ari geranak. Lehen orain baino askoz hobeto bizi ginen. Orain edozein modutan irtetzen gera arrantzara; inork ez du erantzunkizunik hartzen".

Arrantzaleek erabakiak hartzerako garaian ez dute ezer pintatzen, kofraietako presi-denteek batetik eta patroiak bestetik hartzen dituzte erabaki guztiak. Arrantzaleak morroi hutsak dira, lan gogorrena eta zikinena egiten dutenak. "Egurra jasotzen degunak gu gera, ez patroiak. Itsasoa oso gaizki dago, lotsagarri".

### **Bolanten arazoa**

Bolanta sareak Espainian erabiltzea debekatu bazuten ere, Europar Batasunean Ingalaterrak, Irlandak, Italiak eta Frantziak izenpetutako akordio baten bitartez, bolanten erabilera legeztatu zuten; untzi bakoitzak, gehienez ere bi kilometro térdiko sarea bota zezaketela erabakiz.

Arazoa da muga honetatik pasatu egiten direla. Bakoitzak bi kilometro térdi hoietan bakarrik botaz gero sarea, ez dute etekinik ateratzen. Arrazoi hau dela eta akordioa ez dute errespetatzen, askoz kilometro gehiagotan jaurtitzen dituztelarik sareak. Ondorioz, era guztietako arrainak harrapatzen dituzte, interesatzen ez zaizkienak eta guzti.

Bolantekin diru gutxiago gastatzen da, langile gutxiago behar dira. Sare hauek "hemengo arrantzale batzuek ere erabiltzen dituzte, ez frantsesen tamainan baina bai, erabiltzen dira".

Kontua da frantsesek sare hauek gehiegikeriaz erabiltzen ari direnez, beren herrialdeko itsas eremua ia hutsik geratu dela, arrainik gabe. "Horrela, gure kostara sartu dira arrain bila, eta hemendik etorri dira dauden istilu eta gorabehera guztiak".

Hau konpontzeko, Espainiako

gobernuak ez du ezertxo ere egin, alderantziz. Frantsesei oraindik mesede gehiago egin die. Orain dela gutxi, frantsesei Euskal Herriko kostaldean arrainak hartzeko tonelada kopurua haundiagotu die, arrantzale euskaldunen harridura eta haserrea sortaraziz.

Bestalde, iazko urtearekin konparatuz, aurten erdia bakarrik harrapatu dute. "Frantsesen aurka egin ditugun mobilizazio guztiek ez dute ezertarako balio izan. Itsasoan lanean behar genituen bezain beste egun ez ditugu igaro; diru asko galdu degu".

Konfliktu honek gaizki bukatuko duela aitortu digute bi arrantzaleek. "Euskal Herriko flota, erdian geratuko da horrela jarraitzen badegu. Eta arazoari irtenbidea ez bazaio ematen, indarraren erabilpena eguneroko gauza bihurtu daiteke hemengo uretan".



Sare pelajiko eta bolanten kontua oraindik ere konpontzeko dago.



**MENDI - ONDO**  
ELEKTRIZITATEA

Axular 14  
20750 ZUMAIA

Telefonoak:  
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
  - \* Banakoak
  - \* Kolektiboak
  - \* Satellite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.



DORNUTEGI


ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe  
Telefonon: 862051

SUKALDEKO  
ALTZARIAK

20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)





**Andoni Iztueta:**

## "Txiki txikitatik nahi nuen itsasora joan"

16 urtekin sartu zen Glorioso San Telmon

*Zumaiar gazte honek beti izan du oso argi itsasoan egingo zuela lan. Txikitan ez zen oso zaila Andoni paola inguruan ikustea arrantzan. Txapelketetan ere ohizko partehartzailea genuen.*

*Orain, euskal itsasuntzietako arrantzale gazteenetakoa degu, nahiz eta gaur egun gazte dexente sartu langabezia dela eta.*

**Zenbat urtekin sartu zinen ofizio honetan, eta zergatik?**

Ba ni, 16 urtekin hasi nintzen itsasontzian. Eta arrazoia, ba, ikasketak ez nituen oso gustoko eta gainera txiki-txikitatik nuen itsasora joateko irrikia.

**Nondik sortu zaizu ba irriki hori?**

Txikitatik etxean beti ezagutu izan dudana zerbait izan delako. Aita eta osaba beti ibili izan dira itsasoan, eta beti horretaz hitz egiten entzun ditut, eta hori nahi ta

ez sartu egiten zaizu. Hori bai, gustatu ere egin behar zaizu.

**Nola hartu zuten zure erabakia etxekeok, zure gurasoek?**

Nik berez, 14 urtekin nahi nuen joan, baina orduan ez zidaten utzi. Gero, hamasei urtekin, ba ez zuten aukerarik izan, nik ikasketak gustokoak ez nituela argi baitzegoen. Aitak nahi zuen nik patroia edo izateko ikastea, baina nik ez nuen gehiago ikasi nahi.

**Gogorra al da zu bezelako gazte batentzat herritik kanpo hainbeste egun egotea, lagunak ikusi gabe?**

Herritik kanpo baino, gogorrena etxetik kanpo egotea da. Gainera 20 egun kanpoan egon eta gero, kalean ibiltzeari kriston gustua hartzen zaio.

**Zeu itsasuntziko gazteena izanda, nola tratatzen zaituzte beterranoek?**

Batzutan, nahiz eta arrazoia izan ez zaituzte kontutan hartzen; zure iritzia da beti azkenengoa. Baina orokorrean ondo konpontzen gera.

**Azken denboraldian arrantzaren mundua oso nahastua dabil. Nola ikusten duzu zure etorkizuna?**

Oso beltz. Hala ere, niregatik balitz, ez dut esango hortik jubilatzea espero dudarik, baina beste 15 bat urte gustora ibiliko nintzateke. ■

**SURF DENDA**  
**Taosa**

- \* Bainujantziak
- \* Surfeko tablak
- \* Poliesterrezko plastifikatzeak
- \* Erropetako serigrafia
- \* Toallak
- \* Erropak

Erribera Kalea, 17 - 20750 ZUMAIA

**BELARDENDA**  
**SIWA**

Esther Blanco  
OSTEOPATA-MASAJISTA  
Basadi 5-C behea  
Tlf: 143404 - 860012



**Ospatzen al duzu  
San Balentin  
eguna?**



**Maite  
Romaneli:**

Nere ustez, egun hori dendetako gauza bat da, nik ez det ospatzen. Ohiturak daude, baina neri ez zait berezia iruditzen.



**Iñaki  
Iribar:**

Nik ez diot kasu gehiegirik egiten, gaina neskarik ez dakat eta oraindik eta gutxiago. Gehienbat negoziua da, erregaloak egin eta... antzeko gauzak.



**Maria Begoña  
Aramendi :**

Egun hortan gehiena negoziua moitzen da, ze hau errueda bat bezela da, eta beti bueltaka. Horrela jendiak erregaluak erosten ditu, baina nik ez det ospatzen, ze gainera ez gera batere romantikuak.



**Manuel Zubia  
"Tolla" :**

Nik ez det ospatzen. Eguna berez ondo dago, baina ospatzeko beste gauza batzuk behar dia eta, txotxa patrikan ! Egun hori da parejakin ondo egoteko, ez zait iruditzen dana komertzioa danik.



**Iratxe  
Albizu:**

Nik uste det, egun hau nahiko berezia dala, baina egunero ospatu beharko litzateke, bestela maitasunak ez du sentidurik.



**Juanjo  
"Katzaola" :**

Normalian nik ez det ospatzen, baina egunaren zentzua da gustatzen zaidana, hori da garrantzitsuena neretzat, eta ez erregaloak egitea, nahiz eta hori gaizki ez egon.



**Jose Antonio  
León :**

Leno, gazteagoa nintzanian, ez nun ospatzen, baina orain hasi naiz. Salerosketako merkatu bat iruditzen zait alde batetik, baina hala ere ez dago gaizki egun hori.



**Sr. Rodriguez :**

San Balentin eguna ? Zer da hori hemengo jai bat ?..Ah! nere ustez rollo hori gero ta gutxiago ospatzen da. Gainera nik bonboiak saltzen ditut, eta Zumaian ez da asko erosten !



**Ile - kosmetikan diplomatua**

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAIA

*Belardenda*  
**Paki**  
OSASUN NATURALA

erribera 2  
Tlf: 143156


**ONCE**

**JOXE  
MANUEL**








**Kupoi batzuk  
erosi eta ...**

**ZORTE ON !!**











# AZTERKOSTA '94

## Gure kostaldea aztertu eta zaintzeko asmoa du ekimen honek

Europar COAST WATCH izena hartzen duen kanpaina hau urtero egin ohi da gure kostaldean eta Ingurugiri Heziketa da lanaren oinarria eta zentzua. Iazko abenduan ere hainbat eskola eta natur taldetako partaideek euskal kostaldea goitik behera aztertu zuten eta jadanik datuak biltzen ari dira gero ondorioak atera eta liburuxka bat osatzeko.

Zumaiako Natur Taldea

AZTERKOSTA lanaren oinarria eta zentzua Ingurugiro eta heziketa da. Gure kostaldearen egoeraz gizartean dagoen kezka eta ardura haundiagotzen doala argi eta garbi dago, gero babesteko ezer gutxi egiten den arren.

### Lan garrantzitsua

Itsas bazterrak beti izan du garrantzi handia bere bizilekua han hartu duen gizakiarentzat. Jende biltzeak, ordea, itsasertzeko eremuaren egoera fisikoa aldatu egin du, azpiegiturak eraiki baitira bertan -arrantza eta kirol portuak, ...- eta era berean uraren sedimentuen kalitatea hondatu du, hirietako eta industrietako era guztietako hondakinak bertan isuri eta jaurti direlako.

Horregatik ingurugiroari dagozkion heziketa programak garrantzi handiko tresna dira gure itsas bazterren ezaugarriak eta egoera ezagutarazi eta erakusteko, herriak ingurugiroaren babeserako ikerketa proiektuetan parte har dezan bultzatzeko, bertako biztanleek gure

itsas bazterren berri izan dezaten eta erakunde publikoek gure kostaldeko lurraldeak hobeto zaindu eta babes ditzaten.

### Antolatzaileak

COASTWATCH programa Europako ia herrialde guztietan burutzen da eta AZTERKOSTA izena hartzen du hemen. Valentziako Autonomia Elkartearen 1991an prestatu zen txostenean oinarritzen da.

Euskadin UPV-EHUko Paleontologia eta Estratigrafiako Departamentutik eta CEIDA (Centro de Educación e Investigación Didáctico Ambiental) erakundeetatik koordinatu eta bultzatu da asmo hau, eta Zumaiako Natur Taldeak ere oso zuzenean parte hartzen du egitasmo honetan. Euskadi 1992ko uztailean sartu zen Coastwatch sarean eta iazko abenduan hirugarren azterketa burutu zuen gure kostaldean.

Urtean zehar zenbait lan eta unitate didaktiko ere prestatzen dira, lan honetan parte hartzen dutenek nahiko informazio izan dezaten. Bestalde urtero atal ezberdin bat sakonki aztertzen da; 1993an adibidez, kostaldearen babeserako lege eta araudiak aztertu ziren



Zumaiako eta Deba bitarteko ingurunea oso berezia da.

**ERROTA** **ERROTA**  
**OPIL - OKINDEGIA**

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
 Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01  
 ZUMAI

**BASADI** **ALBAITARITZA**  
**KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
 IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
 - ALBAITARIAK -

LARRIALDIK  
 · 24 orduetan  
 · Zeure etxean  
 · Telef. 900-282828  
 Abonatu zbkia: 247790

**Basadi, 7 behea**  
**20750 ZUMAI**  
**Tel. 143310**



# Euskal kostaren egoera, nahiko kaskarra

Azterketa honetan era guztietakoak dira partehartzaileak: Batxilergo institutuak, aisialdirako taldeak, scoutak, ikastetxeak, talde ekologistak, eta abar. Guztira 2.000 lagunetik gora bildu ziren, itsasertza inguratu eta azterketa hau posible egin zutenak.

Zumaian batez ere Natur Taldea eta Institutua dira azterketa hau burutzen dutenak, eta ikastolak eta Maria eta Jose ikastetxeak iaz behintzat lagundu zuten.


Eskoletan lehendik prestatzen dute gero egin behar duten lana. Egunean bertan inkestak, aurreko urteko emaitzak, zenbait dossier eta analisiak egiteko tresneria banatzen zaie partaideei.

## Zer aztertzen den

Euskal kosta osoa 5 kilometrotako zatietan banatu zen, guztira ia 300 km osatu arte. Guzti hau taldeen artean banatu eta garai berean egin zuten azterketa.

Gauza asko dira aztertzen direnak; adibidez itsasertzerako irispidea nolako den ikusten dute: kotxez edo oinez sartzeko aukerarik badagoen, sarrera zaila duen, eta abar. Baita itsasertzaren ondoen zer nolako lurraldeak dauden ere: zelaiak, padurak, fabrikak, errepideak, etxebizitzak, eta abar.

Lehorretik datozen ur lasterrak ere aztertu dira eta ikusi da asko usain eta kolore txarra dutela.



Zikinkeria itsas bazterrera isurtzen duten hodiak ere begiratu dira eta honen arabera hodian %40a Bilbon bakarrik daude.

Azpimarragarria da gure itsasertzaren estutasuna, 50 metrotik gorakoa ez baita izaten gehienetan. Bestalde Zumaia-Deba artean dago Kantauriko marearteko gunerik haundiena, baina hala ere ez zaio aitortu inolako babes eredurik.


## Landare eta animaliak

Landaretzari dagokionez itsasbelar edo algak dira gehien azaltzen direnak, eta batez ere gorriak. Zenbait lekutan itsasoko fanerogamak ere azaltzen dira, hau da, itsas ingurunera egokitutako landare loreduak.

Animaliak ere aztertzen dira, ordea. Harkaitzetan zer nolako organismoak dauden ikusten da: oskoldunak, arrainak, ...Haitzetan egiten den arrantzak organismo biziak ezezik hauen habitatak ere hondatzen ditu.

## Zabor pila

Garrantzi handia du zaborren



kutsadura nolako den ikusteak. Tamaina haundiko hondakinak ikusten dira -altzariak, poltsa piloak, neumatikoak, ...- eta honek itsasertza oraindik ere zabortege modura erabiltzen dela frogatzen du. Gainera urbanizatutako tokietan zabor gehiago pilatzen da besteetan baino.

Zabor artean denetik aurki daiteke, baina aipagarria da 93an adibidez 1.951 kristalezko ontzi, 4.117 lata, 6.623 plastikozko ontzi eta 1.148 tetrabrik zenbatu zirela. Olio eta petrolioa ere ikusi izan da eta sustantzia arriskutsuen 30 ontzi ere lokalizatu ziren. Jotako erantzunen arabera kontrolik gabeko isurketak ere egiten direla ohartu dira. Kezkagarria benetan.

Azkenik itsasertzak jasaten dituen arrisku eta mehatxuak ere aztertzen dira: higadura, eraikuntza turistikoak, kirol portuak, zabortegeak, eta abar.

Momentu honetan datuak bildu eta ondorioak ateratzen ari dira, gero hauekin liburuxka bat ateratzeko. Ea lan guzti honek zerbaitetarako balio duen! ■

**AXIER KIROLAK**

Ortega y Gasset, 2  
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

**BASUSTA ERRETEGIA**

M<sup>a</sup> Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25  
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA

**BIZKOR FOTOKOPIAK**

Enkuadernaketak  
Plastifikatzeak  
Fax publikoa  
Bulegoko materiala

Basadi 14, behea  
ZUMAIA

Tel./Fax:  
143120



## ABORTOA ZENBAKITAN

**A**zken zenbakian abortoaren inguruko zenbait arazo moral eta etiko planteatu genituen. Oraingoz abortoaren gaiarekin amaitzeko, zenbait datu eta zenbaki adierazgarri eskeini nahi dizkizuegu. Jendea haurdun geratzen denean hala nahi izan gabe, zergatik gertatzen da? Metodoak huts egin du edo gaizki erabili al dute?

### Metodoaren akatsa:

|                        |       |
|------------------------|-------|
| KONDOIAREN AKATSA..... | %4,5a |
| DIU-REN AKATSA.....    | %1,6a |
| PIRULAREN AKATSA.....  | %1,1a |
| BESTEEN AKATSA.....    | %1,4a |

### Metodoaren erabilera okerra:

|                                  |       |
|----------------------------------|-------|
| KONDOIAREN ERABILERA OKERRA..... | %3,4a |
| PIRULAREN ERABILERA OKERRA.....  | %2,3a |

### Metodo egokia ez erabiltzea:

|                    |        |
|--------------------|--------|
| ATZERA PAUSOA..... | %37,6a |
| OGINO.....         | %24,3a |
| BAT ERE EZ.....    | %23,8a |

### Ondorioak:

Nahi izan gabe izandako haurdunaldien %85,7a metodo desegokiak erabiltzeagatik edo metodorik ez erabiltzeagatik ematen dira. Metodoaren akatsak edo honen erabilera okerrak berriz haurdunaldien %14,3a besterik ez dute suposatzen. Beraz, esan beharra dago "atzera pausoa" edo "Ogino" bezelako metodoak ez

direla batere egokiak. Esan behar da baita ere informazio falta izugarria dagoela, %23,8ak ez baitu inongo metodorik erabiltzen, beraiei tokatuko ez zaielakoan, hau loteria balitz bezela...

Beraz, haurdunaldi hauen kontra egin nahi badegu, zuzendu ditzagun gure indarrak jendea hezitza eta ez hainbeste kondoiarekin sartzera.

## BALENTIN DEUNAK UKATU DIGUNA

Erromatarren garaian Cesarrek bere soldaduei ezkontzea galerazi omen zien, beraien indar guztiak gerrarako gorde zitzaten. Baina Balentin gotzai gazteak ezkutuan ezkontzen zituen. Cesar konturatu egin omen zen, eta Balentin atxilotzea erabaki zuen.

Cesarren aurrera eraman zutenean, hain harrituta ikusi zuen enperadorea bere ideien koherentziarekin, Balentin Cesar konbentzitzen ere saiatu zela. Gehiegitxo. Espetxeratuaizan zen heriotz zigorrarekin. Kronikek diotenez, espetxean zegoen bitartean Balentin espetxeko zaindariaren alaba itsuaz maitemindu zen. Jainkoaren ikutua zuenez, orduntxe izan zuen bere lehen miraria egiteko aukera, neskatoari ikusmena itzuliz. Hala ere hil egin zuten. Kristautasunaren ofizialtasunarekin batera, Balentin gotzai insumisoa, Balentin Deuna bihurtu zen, maitasunaren santua. Baina ez da hori bakarrik; ohitura aldaketa ere etorri zen. Ordutik hona nagusitu den oparien ohituraren atzean, oso erakargarriak diren beste batzuk geratu ziren ahaztuta. Horrela, Erroman joko berezi bat egiten zuten: emakumeek beraien izenak idatzita sartzen zituzten saski batean, eta mutilek hauetako bat aukeratu. Bikoteak urte osorako osatzen ziren sexuaz gozatzeko. E.H.n ere lehen akelarrea otsaila inguruan ospatzen zuten. Zeuek aukeratu!

## xirula



ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA  
Tel. 861705



Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA



# SEX-POL MANIFESTUA

Wilhelm Reich (1936)

**H**emen aurkezten dizueguna, 1936. urtean Wilhelm Reich alemaniarrak eginiko manifestua da. Manifestu hau Berlingo langileen auzoetako gazteen artean banatu zuen. Ikusiko dezuenez, gaur



egun ere, askori kostatuko litzaioke horrelako zerbait onartzea. Oso interesgarria da ikustea nola faxismoa goraka zihoan urte haietan, batzuk ze ideia aurreratua zituzten.

## Ez da kaos sexuala

- \*Sexuaz eta maitasunaz mugarik gabe elkar gozatu nahia, arau moralak kontutan izan gabe.
- \*Haur eta gazteak sexu kontutan errudun sentimenduaz askatzea eta beraien nahien arabera bizitzen laguntzea.
- \*Ez ezkontzea bestea sexualki sakonki ezagutu arte.
- \*Ez izatea sexu harremanak profesionalekin, lagunekin baizik.
- \*Harremanak ez izatea ezkutuan eta edozein txokoan, baizik eta gela garbietan eta inoren beldurrik gabe.
- \*Ez izatea haurrik nahi eta ahal izan arte.
- \*Maitasuna eta sexu harremanak izateko inori baimena ez eskatu beharra.
- \*Maitasunik gabeko loturak ez mantentzea arrazoi moral edo sozialengatik soilik.

## Kaos sexuala da

- \*Ohean "bikote-betebeharretaz" hitz egitea.
- \*Sexualki ezagutzen ez dugun pertsona batekin bizitza osorako konpromezua hartzea.
- \*Prostituzioak eragindako bizitza iluna eta abstinentziak ezkontza gauean sortutako exitazioa.
- \*14 urtekin bilutsik dagoen emakume batekin amets egitea eta 20 urte betetzean emakumearen garbitasuna eta ohorea aldarrikatzea.
- \*Sexualki funtzionatzen ez duten, baina beraien amets maltzurak haur eta gazteei irakasten dizkieten pertsonen esistentzia bultzatzea.
- \*Gazteak masturbatzeagatik zigortzea.
- \*Industria pornografikoa onartzea, eta gero, kulturaren izenean beraien behar sexualen betetzea oztopatzea.



**OPTIKA  
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057  
20750 ZUMAIA

**ZALLA  
TABERNA - ERRETEGIA**

- \* Plater konbinatuak
- \* Otartekoak
- \* OILASKO ERREAK  
(Enkarguak jasotzen dira)

San Pedro, 4 Tel. 862387 ZUMAIA



# HERRIKO TALDE NAGUSIENAK BEHEA JOTA DAUDE

**Futbol, eskubaloi eta saskibaloiko lehen taldeak denboraldi eskasa burutzen ari dira**

Kirol talde ezberdin hauek denboraldi erdia jokatu dutenean, ezin daiteke esan oraingoz gauzak ondoegi irteten ari zaizkienik. Saskibaloiko eta eskubaloiko taldeak zulo sakon batean murgilduta dauden bitartean, futboleko talde nagusienak ere burua altxa gabe darrai. Espero dezagun denboraldi amaiera heldu baino lehen egoera hobetzea eta ez izatea arazo handiegirik maila mantentzeko.

*Baleike*



## Futbolean gaizki

Taldeek beren Ligetako partidu erdiak jolastu dituztenean, oraingoz hauek egindako lana ez da batere ona izan. Sailkapenean bakoitzak duen tokiari begirada bat botatzea besterik ez degu.

Futbolean, Erregional mailakoak hamalargarren postuan kokaturik daude; eskubaloiko taldea azkenbigarren eta saskibaloikoa berriz, azken postuan. Etorkizuna nahiko iluna dute baina beren lana hobetzeko esperantza ez dute galtzen.

Hiru taldeetatik futbolekoa dabil hobekien. Baina hau zerbait esateagatik, zeren egiten ari diren denboraldia uste baino txarragoa baita.

Talde honek era guztietako arazoak izan ditu: hasteko, entrenatzaile berriak ohitu gabe dagoen maila batetara moldatu beharra izan du eta honek denbora bat eskatzen du. Bestalde, aurten jende berri asko sartu da taldean.

Gainera, Zumaiako F.T.-ak oraindik ez du zehaztu zein izan behar den bere filosofia, proiektu konkretu bat falta zaio. Oskar Kastro entrenatzailearen esanetan, "zein helburu lortu nahi dituen ez du erabaki. Hainbat gauza dira zehaztugabeak daudenak eta horietan gehiago jardun beharko liritekeenak. Proiektu konkretu bat dagoen momentuan jakingo degu nondik nora abiatu behar degun eta nola".

Jokalariak gogo askorekin

**GOOBY**  
HAUR JANTZIAK  
Amaia plaza, 2/g  
Telef. 860959  
ZUMAIA

**CUGUSTIN**  
HARATEGIA  
URDAITEGIA  
Itzurun Zuhaitz-bidea, 1  
20750 ZUMAILA Telefonoa: 862430

**CORO PRIETO**  
Esteticista  
Bonifazio Etxegarai plazatxoia 2/g



daudela esan digu, zelaian futboleko duten jarrera eta konportamendua egokia dela. Joxe Mari Albizu jokalaria ez dago erabat ados ikuspegi honekin ordea. *"Esperientzia falta alde batera utzita, jendeari ilusioa falta zaio futboleko jokatzeko; batzutan badirudi, berdin dela irabaztea edo galtzea. Futbola ez dute behar bezala sentitzen edo bizitzen"*.

Honetaz gain, batzutan entrenamendutan ez dira jokalaria guztia biltzen (lana, ikasketak...) eta hau, partiduak jokatzeko garaian igertzen da. Oskar Kastrok azaldu duenez *"denok egon garen asteetan, edozeini irabazteko gai generala erakutsi degu. Horregatik, ziur nago hemendik denboraldia amaitu bitartean, paper askoz hobeagoa beteko degula"*.

**Eskubaloian okerrago**

Aurreko urteetan beti hor aurrean ibili ondoren, aurten eskubaloiko taldeari beste aurpegia ezagutzea tokatu zaio. Larri xamar, azkenbigarren tokian ditugu.

Abel Yeregi taldeko entrenatzaileak gertatzen ari denari ez dio azalpen argirik ikusten. *"Partiduetako lehen zatietan ondo ibiltzen gera, pare-parean, baina*

*ari gera. Orain dagoen jendea ez da eskasa baina erantzunkizunak asko pisatzen die"*.

**Entrenamenduak nahi bezala egiteko arazo handiak dituzte talde guztiek**

**Futboleko sailkapena**

| Taldea          | ptk | J. | Irab. | Ber. | Gal. |
|-----------------|-----|----|-------|------|------|
| Intxaurreondo   | 26  | +  | 10    | 6    | 2    |
| Azkuene         | 26  |    | 9     | 8    | 1    |
| Tolosaldea      | 25  |    | 10    | 5    | 3    |
| Baskonia        | 25  |    | 10    | 5    | 3    |
| Tolosa          | 24  |    | 11    | 2    | 5    |
| Euskalduna      | 21  |    | 9     | 3    | 6    |
| Anaitasuna      | 20  |    | 8     | 4    | 6    |
| Danak           | 20  |    | 8     | 4    | 6    |
| Ilintxa         | 20  |    | 8     | 4    | 6    |
| Orioko          | 18  |    | 8     | 2    | 8    |
| Touring         | 18  |    | 5     | 8    | 5    |
| Amaikak Bat     | 18  |    | 5     | 8    | 5    |
| Allerru         | 16  |    | 4     | 8    | 6    |
| <b>Zumaiako</b> | 16  |    | 5     | 6    | 7    |
| Soraluze        | 15  |    | 6     | 3    | 9    |
| Aretxabaleta    | 12  |    | 3     | 6    | 9    |
| Urola           | 12  |    | 3     | 6    | 9    |
| Alde Zaharra    | 12  |    | 4     | 4    | 10   |
| Bergara         | 10  |    | 4     | 2    | 12   |
| Gure Txokoa     | 6   |    | 2     | 2    | 14   |



*bigarren zatian huts egiten degu. Momentu garrantzitsuenetan ez degu kontrolatzen geure jokua. Denboraldi honetan mentalizazioa da jendeari falta zaiona, buru gehiagorekin jokatzea"*.

Xabier Aizpurua jokalaria-riarentzat, aurten taldetik joan direnen hutsunea asko nabari izan da. *"Ibon Enbil eta Iñaki Sorazu, biak ere, puntako jokalaria dira eta beraien falta dexente igertzen*

Joan den urtean titular izan ez ziren jokalaria asko aurten lehenengo hamaikakoan ari dira hasera-haseratik.

Hemen ere entrenamenduak egiteko arazo handiak dituzte. Bat-ten lana eta bestearen ikasketak direla eta, ezin izaten dute entrenamendu bat kondizio onetan egin.

Denboraldi amaierarako helburu nagusia mailari eustea dela

KOSTA GAS



GAS ETA  
KALEFAZIO  
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

**expert**  
**ELEKTROGAILUAK**

Mertxe Aizpurua  
expert eta  
Repsol-Butanoren  
Banatzaile Ofiziala

**GURE TXOKOA**

**TABERNA**

Kaxuelita eta pintxo  
ezberdinak

**San Pedro kalea Zumaia**



adierazi du entrenatzaileak. "Ikusita sailkapenean azken bigarren postuan gaudela, ezin degu beste ezer planteatu. Momentuz saiatuko gera asmo hori lortu ahal izaten eta ondo ateratzen bazaigu, datorren urtean planteamendu berriak egin beharko ditugu. Denboraldi honi buruzko erreflexio sakona egin beharko degu".

## Saskibaloian okerrago

Aurreko bi taldeak gaizki xamar badabilta, saskibaloiko taldeari buruz ere ezin dezakegu besterik esan. Sailkapenaren azken postuan aurkitzen dira, eta salbatzeko itxaropenak ez dira handiegiak.

## Eskubaloia eta saskibaloiko taldeen helburu nagusi eta bakarra maila ez galtzea da

Normala denez, taldea orain arte egin duenarekin ez dago batere gustora.

Jon Argoitia jokalariairean ustez, honako hauek izan daitezke hain gaizki ibiltzearen arrazoiak: "lesioak asko izan ditugu eta bestetik, jokalaria guztiak denak batera entrenatzeko posibilitaterik ez degu".

Ostiraletan bakarrik entrenatzen dute gainera. Astean saio bat eginez zaila da gero partiduetan emaitza onak eskuratzea. Partiduetan, norberak dakien guztia ateratzen du baina ez da nahikoa, hain entrenamendu gutxi egitean, konjuntzioa falta baitaie.



Kontutan hartu behar da gainera, joan den urtean baino maila altuago batean ari direla jokatzeko eta honek ere jakina, eragina izango du. Hala ere, "ziur nago entrenamenduetan denok egongo bagina, askoz ere hobeto

ibiliko ginela". Horrela, zaila badute ere, ez jeistea da beren helburua; horretarako azken hiru postuetatik urrundu beharko dira.

Ia zorte pixkatekin lortzen duten. ■

## Hona hemen, eskubaloiko eta saskibaloiko taldeen sailkapenak

| <i>Eskubaloia</i> |     |    |       |      |     | <i>Saskibaloia</i> |     |    |       |      |     |
|-------------------|-----|----|-------|------|-----|--------------------|-----|----|-------|------|-----|
| Taldeak           | ptk | J  | Irab. | Ber. | Gal | Taldeak            | ptk | J  | Irab. | Ber. | Gal |
| ITE Honda.        | 24  | 14 | 12    | 0    | 2   | Loyola             | 25  | 13 | 12    | 0    | 1   |
| Urdaneta          | 23  | 14 | 10    | 3    | 1   | Politec.           | 23  | 13 | 10    | 0    | 3   |
| Donibane          | 20  | 14 | 10    | 0    | 4   | CAF                | 22  | 13 | 9     | 0    | 4   |
| Arrate            | 14  | 14 | 7     | 0    | 7   | Atletico           | 22  | 13 | 9     | 0    | 4   |
| Urduliz           | 14  | 14 | 6     | 2    | 6   | Prospek.           | 22  | 13 | 9     | 0    | 4   |
| Usurbil           | 13  | 14 | 6     | 1    | 7   | Larramendi         | 22  | 13 | 9     | 0    | 4   |
| Escolapios        | 13  | 14 | 5     | 3    | 6   | Ordizia            | 21  | 13 | 8     | 0    | 5   |
| Bizkor F.         | 13  | 14 | 6     | 1    | 7   | Arrasate           | 18  | 13 | 5     | 0    | 8   |
| Portugalete       | 13  | 14 | 6     | 1    | 7   | Goierri            | 18  | 13 | 5     | 0    | 8   |
| Fuchs             | 12  | 14 | 6     | 0    | 8   | Aralar             | 18  | 13 | 5     | 0    | 8   |
| EHU-UPV           | 11  | 14 | 4     | 3    | 7   | Eskoriatza         | 18  | 14 | 4     | 0    | 10  |
| Bergara           | 11  | 14 | 5     | 1    | 8   | Ezgar              | 17  | 13 | 4     | 0    | 9   |
| <b>Pulpo</b>      | 9   | 14 | 4     | 1    | 9   | Ostadar            | 17  | 13 | 4     | 0    | 9   |
| Deusto            | 6   | 14 | 3     | 0    | 11  | ST. Lizeoa         | 17  | 13 | 4     | 0    | 9   |
|                   |     |    |       |      |     | <b>Lagun Art.</b>  | 14  | 13 | 1     | 0    | 12  |



ZINE FORUM

Otsailak 9, gaueko 10,15etan

**Morir Todavía (1991)**

Zuz: Kenneth Branagh

Akt: Kenneth Branagh, Andy Garcia, Emma Thompson

Zuzendari irlandar honek ez du aurkezpenik behar, azaroan "Los amigos de Peter" bere hirugarren filma izan genuelako. "Morir Todavía" pelikula Branagh, en nabarmenena da, Orson Welles eta Alfred Hitchcock-i omenaldi gisa eginikoa. Batez ere "Ciudadano Kane" eta "Vertigo"-ri. Zuri-beltzean iragana jauregi handi bat....

Gaur eguna koloretan, amets gaiztoak, misterioa, beste bizitza batean gozaturiko maitasuna... errenkarnazioa... Nabarmentzen diren zinegile europarrak Hollywood-etik deituak izaten dira. Irlandar gazte honek "Frankenstein" pelikula egin du. Ea Hollywoodeko makinaria xurgatzaileak ez duen irensten.

Otsailak 23, gaueko 10,15etan

**Juego de Lagrimas**

Zuz: Neil Jordan

Akt: Stephen Rea, Forest Whitaker, Jaye Davidson.

Beste zinegile irlandar honek, European egiten ditu bere filme hoberenak: "Amor a una extraña", "Mona Lisa" e.a. Hollywoodetik deitua izan denetik ordea, hango produktuek irentsi egin dute han eginiko lau pelikulak nahiko eskasak izanik. Zorionez, "Juego de Lagrimas" tarte batean European eginikoa da. IRAko militante bati gertaturiko istorioa kontatzen du. Ez nahastu, ez da IRARI buruzko filmea, erakunde armatu honetako bati gertaturiko istorio bitxi, harrigarri, ikusgarri eta ezustetik ezustera garamatzana.

**Irakurketarako aukerak**

Espainiar literaturari dagokionez, hemen duzue zerredatxo bat:

|                                     |                     |
|-------------------------------------|---------------------|
| "Mujeres de negro"                  | Aldecoa, Josefina R |
| "Juegos de la edad tardía"          | Landero, Luis       |
| "Caballeros de fortuna"             | Landero, Luis       |
| "El hombre sentimental"             | Marías, Javier      |
| "Mañana en la batalla piensa en mi" | Marías, Javier      |
| "El jardín vacio"                   | Millás, Juan Jose   |
| "La vida desnuda"                   | Montero, Rosa       |
| "Real sitio"                        | Sampedro, José Luis |

Frantses literaturari helduz, Marcel Proust-en "En busca del tiempo perdido" liburuaren atal guztiak irakurtzeko aukera dezue:

|  |                |
|--|----------------|
| "Por el camino de Swann"               | Proust, Marcel |
| "A la sombra de las muchachas en flor" | " "            |
| "El mundo de guermantes"               | " "            |
| "Sodoma y Gomorra"                     | " "            |
| "La prisionera"                        | " "            |
| "La fugitiva"                          | " "            |
| "El tiempo recobrado"                  | " "            |

 **Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAIA AUTOAK**

Juan Belmonte, 45  
ZUMAIA

Telefonoa: 861485  
Fax: 143143

**EGUZKI**

**PUB**

**KOKTEL BEREZIAK**

**Basadi Auzategia**  
9-A 2-B  
ZUMAIA

**ITSASKI**

**SUPERMERKATUA**

Urumea kalea, z/g  
**ZUMAIA**



# IKASTAROAK AUKERAN

## Idazketa eta dantza ikastaroak hasteko daude


Idazketakoa hiru hilabetetako ikastaroa izango da, larunbatero 2 ordu t'erdiko saioak izango direlarik, otsailaren 11ean hasita. Izen ematea 500 ptatakoa da, Forondan edo udaleko euskara zerbitzuan (860250 Belen).

Dantza ikastaroa astelehen, asteazken eta ostegunetan izango da 3etatik 4etara Forondan. Matrikula 2.000 ptatakoa da, izen emateko epea otsailaren 9an amaitzen delarik Forondan bertan.

Hainbat ikastaro ditugu jadanik martxan herrian. Hala ere, interesik baldin baduzu hauetako batetan, Forondara deitu besterik ez duzu eta bertan informatuko zaituzte:  
-Landareei buruzko ikastaroa. Barneko eta kanpoko landareei buruz, astegunetan eta hilabetez.  
-Dibujo ikastaroa ere martxan dago jadanik.  
-Sukaldaritza bejetarianoa ikastaroak izugarritzko arrakasta izan du, bi txanda antolatu direlarik.

## MENDI ASTEA 95

Diapositiba emanaldiak izango ditugu Forondan, Otsailak 13-18 bitartean, arratsaldero 7-30etan, Inda Mendi elkartearen eskutik.



Otsailak 13, astelehena:  
K-2 94. Iñurrategi anaiak.

K-2a ez da edonolako zortzimilako bat, bide guztiak zailak ditu, planetako mendirik altuena da.

Otsailak 14, asteartea:  
"Kantauriko mendilerroa, Picos de Europa". Xabier Aranguren.


Gugandik oso gertu dugun arren, Kantauriko mendilerroa ez dugu hain ondo ezagutzen.

Otsailak 16, osteguna:  
"Haitzetan gora"/"Escalada en roca". Jose Ramon Eskibel.

Otsailak 17, ostirala: "Bi bide berri Paine-ko dorreetan". Jon Lazkano.

Hornosko muturra, Fitz Roy, Magallanes, Cerro Torre,... Patagonia da, zailtasunaren zale diren mendigoizaleen helburua.

Otsailak 18, larunbata:  
"McKinley" Felipe Uriarte.



**AIZPURUA**  
LIBURUAK  
R U D E N D  
OPARIK

Aita-Mari Auzategia, 17  
Telefonoa: 861569  
20750 ZUMAIA

Opari artikulua

**algorri**  
Lurrindegia



Erribera kalea, 5 ZUMAIA Telefonoa: 862398



**ERTZ**  
INFORMATIKA

\* KONPUTAGAILUAK  
\* OFIZINAKO TRESNAK  
\* AKADEMIA

Mendaro Marineta, 3 behea  
Telefonoa: 143395 ZUMAIA



# Ihauteriak 95

**Aurten ere  
ihauterietako  
asteburua gozatzeko  
parada ederra izango  
degu, programa oso  
zabala ez izan arren.**

**Otsailak 25, Larunbata.**  
6'30-9'30 eta 10'30-11'30:  
Tximeletak txaranga  
11'30-3'30: Belea Band musika  
taldea plazan.  
**Otsailak 26, igandea:**  
Setan: Txotxongiloak plazan.  
**Otsailak 27, astelehena:**  
Setan. Haurrentzat ikuskizuna  
plazan.



Garai batetan ere mozorrotzen ziren herriko neska gazteak.

## Eski irteera

**Martxoa hasierako  
asteburu batetan  
izango da  
gazteentzat eski  
irteera. Zuek lasai  
egon, kartelak  
jarriko dira eta.  
Bestela Forondan  
galdetu.**

Argazki elkarteak, herriko argazki zaharren bilduma bat osatu nahian dabil. Hortarako, herriko jendearen laguntza behar dute, utzitako argazkien kopia bat atera ondoren, itzulketa ziurtatzen dutelarik.



## Zumaiako Fototeka

Martxoan gainera, erakusketa bat ere antolatuko dute.

Hortarako argazkiak Forondara ekarri lehen bait lehen.

## Santa Ageda

Otsailaren 4ean herriko talde bat baserriz-baserri ibiliko da Santa Eskean, ohitura eta usadio zaharrak jarraituz. JON MAIA eta JEXUS ARZALLUS arituko dira kopletan eta soinu txikiaren laguntza izango dute noski.

Goizean Askizu aldean ibiliko dira eta arratsaldean Oikia aldean; eta gauean beharbada herritik ere buelta bat emango dute.

## SANTA ESKEA 95

OTSAILAK 4 LARUNBATA  
(EGUN GUZTIRAKO)



JUSTA  
TABERNA  
EGUNEROKO  
BAZKARIAK

Erribera kalea 20, Zumaia

## KALARI TABERNA JATE TXEA

- \* Eguneko menua
- \* Plater konbinatuak
- \* Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA



# ESAN OZENKI DISKETXEAK BERE LEHEN BILDUMA ATERA DU

Esan Ozenki diska etxea Negu Gorriak taldearen eskutik sortu zen 1991ean, musika mailan autogestioa eta independentziaren alde apostu eginez. Honek, egunez egun askatsun eta elkartasun gutxiago dagoen diskografia munduan gure etorkizuna erabaki ahal izatea posible egiten du.. Boteredunak inposatzen dituzten hizkuntza estandarrak apurtzeko prest, euskera mantentzen dute zigiluaren eta ordezkatzan dituen talde guztien nortasun ezaugarri eta komunikabide gisa.



## Baleike

Lau urte pasatu dira diskaetxe independente hau sortu zenetik. Lan ugari egin da estudio barruan eta baita ere hortik kanpora ere. Disketxe bertan sortu zen (Bitacora) azpi zigilua, Juan Carlos Perez Itoizeko kantari ohiak 1984. urtetik honantz hainbat telebista saiorako egokitu eta sortu dituen musikak, eta soinu-banden kopilazioen zabalkunderako.

Esan Ozenkiko estudiotan grabatzera sartzeko beharrezko baldintza bat dago, euskaraz abestea. Denetarik nahastu da estudio hoietan, Rocka, Rap, Heavy-a, Hardcorea, Funkya; dena euskeraz eta horren oroigarri hemen datorkigu

1991-1994 bilduma hau:

**Negu Gorriak:** Negu Gorriak-(Oihuka). Gure Jarrera/Gora Herria/Borreroak Baditu Milaka Aurpegi/Hipokrisiari Stop Bilbo 93-X-30- (Esan Ozenki).

**Delirium Tremens** desagertutako taldearen "Boga boga" klasiko hau jasotzen da bilduman, Bilbon 91an eskeinitako azken kontzertukoa deguna.

**Delirium Tremens:** Ikusi eta Ikasi/Hiru Aeroplano-(Oihuka)Delirium Tremens/Bilbon Zuzenean 93-X-30 (Esan Ozenki).

**E.H. Sukarra** taldeari izena ematen dion abestia da aukeratu dutena bildumarako. Talde eibartarrak grabatu dituen hiru diskak Esan Ozenkirekin egin dute. Eta euskal gaztediaren artean oso

harrera ona izan dute Su Ta Gar taldearen bi diskak bezala. Azken hauen kasuan "Lanik Zailena", Monstru Hilak zaken lanekoa aukeratu dutelarik. Heavy musikak beti izan ditu jarraitzaile tinkoak, beste estilo askotan gertatzen ez dena.

**E.H. Sukarra:** E.H. Sukarra/Irtenbide Bakarra/Garaien Laberintoan (Esan Ozenki).

**Su Ta Gar:** Hortzak Estuturik/Presoak S.O.S. (Esan Ozenki).

**Kortaturen** musikak baita ere badu gogorapenik bilduma honetan. Taldearen zuzeneko azkenengodiskak, jaso zuen zentzura gaineratu ondoren, zuzenean grabatutako diska hoberenetariko bat bezala hartu dute Maximum Rock & Roll



**TXALAPARTA**  
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89  
Fax. 43 06 37

**JEMAR**

**LOREDE NDA**  
LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK

Erribera, 1 Telefonoa: 860375  
20750 ZUMAIA



aldizkarikoek.

**Kortatu:** Kortatu/A la Calle/El estado de las cosas/Kolpez Kolpe (Oihuka). Azken Guda Dantza diska zuzeneko da.

**Danba,** funk-core nahasketa bat da; "frango futs" degu Esan Ozenkiren estudiantan grabatu duten lan bakarra, eta bertatik jasotzen da "Onddo deabru" kanta.

**Danba:**Plataforman/Esamesaka (Basati diskak). Frango Funts (Esan Ozenki).

**Anestesiaren** musika, soinua krudel, garratz eta erasotzailea bezala aurkezten digute Esan Ozenkikoek, Trasharen indarra."Agur" da bertan azaltzen zaigun abestietako bat.

**Anestesia:** Toki berean/ Gorrotoaren Ahotsa (Esan Ozenki).

**Lin Ton Taun** taldeari buruz berriz zer esango degu. "Kateak Apurtu" izan dela bildumarako aukeratu duten abestia.

**Lin Ton Taun:** LTT/Nola esan dek?(Esan Ozenki).

**Les Mecaniciens** Jabier Muguruzak sortutako taldea degu. Satira, erritmo beroa, xehetasunez jositako bidea jarraitu du. Esan Ozenkiren barruan diska bat grabatu dute "Euskadi Jende Gutxi" izenpean.

Gaur egun Jabier Muguruzak bere bakarreko "Long-Play"a kalean du "Boza Barruan" delarik bere izenburua; diska bitxia benetan. Diska hau Elkar argitaletxearentzat grabatu du.

**Les Mecaniciens:** Les Mecaniciens/ La Xoragarria (Elkar). Euskadi Jende Gutxi (Esan Ozenki).

**Ama Saytaz** nahiko mintzatu degu Baleike aldizkari honetan. Bakarrik esan, "Gaua" dela kaleratu dituzten kantetatik bildumarako aukeratu dutenak, estudioko bertsioan.

**Ama Say:** Ikusi ditut Umeak Kalean Ametsak Akatzen/ Noiz Pop?/

Say Ama (Esan Ozenki).

**Bap** degu Esan Ozenkiren azken fitxajea. Andoingo talde honek, hardcore banguardista barruan lantzen ditu beraien abestiak. "Beste Aldean" da entzun dezakegun abestietako bat. Esan Ozenkirentzat grabatu duten diska bakarra "Lehertzeko Garaia" da.

**Bap:** Bide Huts eta Etxe Huts/ Zuria Beltzez (Basati diskak). Eta

**Esan Ozenki disketxean grabatzeko baldintza bakarra euskeraz kantatzea da**

lehen aipatu degun bezala, "Lehertzeko Garaia" Esan Ozenkirekin grabatutakoa.

**Negu Gorriak**-en "Itxoitzen" kantak ixten du Esan Ozenkiren lehen bilduma hau. "Borreroak Baditu Hamaika Aurpegi" taldearen estudioko azken lanetik aukeratua degu aipaturiko kanta hori.

Bilduma honek irauten duen ia 53 minutuen atzean, azken urteotan euskal musikarentzat egindako lan, izerdi, negar eta jakina baita momentu alai eta ezin hobeak gordetzen dira. Gure kulturarentzat beharrezkoa eta oso interesgarria den altxor bat da. Hemendik aurrera egiteko animatzen ditugu, bai Esan Ozenki disketxeari eta baita euskal musikagile guztioi ere.



Su Ta Gar taldeak arrakasta handia izan du euskal gazteen artean.

**TXOKO  
TABERNA**  
Artadi auzoa  
**ZUMAIÁ**

*Jesuskoa  
Faletxea*  
  
*Apar 86 17 39 • Ukiu Zumaia*



**KABI**  
TABERNA - ZUMAIÁ



|    |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
|----|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
|    | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 2  |   |   |   |   |   |   | ■ |   |   |    |
| 3  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 4  |   |   |   |   | ■ |   |   |   |   | ■  |
| 5  |   |   | ■ |   |   |   |   |   | ■ |    |
| 6  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 7  |   |   |   |   | ■ |   | ■ |   |   |    |
| 8  |   |   | ■ |   |   |   |   |   |   |    |
| 9  |   | ■ |   |   |   |   |   | ■ |   |    |
| 10 |   |   |   |   | ■ |   |   |   |   |    |

**Ezker eskuin:** 1.-Izebaren semea. 2.-Ipar., marmarioa. Euskal Pirineotako mendia, "h" gabe idatzia. 3.- Garazikoa. 4.- Etengabe ihardun. Ibaien gaineko igarobide. 5.-Nafarroako autoetan. Gurasoen ama. Potasioaren sinbolo kimikoa. 6.-Drogen menpean dagoena. 7.-Urritzaren fruitua. Fosforoaren sinbolo kimikoa. Niri, du. 8.-Lehen pertsona. Etxearen estaldura. 9.-Bokala. Batarena eta bestarena. Bizkaiko herria. 10.- Haustearen onomatopeia. Garaiak.

**Goitik behera:** 1.-Legenak joak. 2.-Ekar arazi. Röntgen. 3.-Josteko gai. Zakur. baldintzetan. 4.-Esanda ere. 5.-Ekialdean, naiz. Bizkaieraz. hura. Bokal errepikatua. 6.-Entsalada. 7.-Uranioaren sinbolo kimikoa. Aunatu aditzaren infinitiboa. Bizkaieraz, gehiegi. 8.-Bizkarraren gaineko aldea. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. 9.-Gutxi. Jitea. 10.-Gipuzkoako herria. Pl. Etxe animaliak.

**Hizki sopa**

Olerkian dauden bost hitz aurkitu behar dituzue

Zutaz maiteminduta nago baina ezin dut hitz sinple batzuekin bihotzean sentitzen dudana espresatu. Ahaleginduko naiz, bihotzeraino gerturatzen, baina beharbada ez da maitasuna adieraziko dudana, maitasunaren sintomak baizik.

M O K U S T H D U  
 D A B E R O K U K  
 B X I D E T S P H  
 N O H T E K H O B  
 D B O G A H N L A  
 B A T E E S O L R  
 P X Z G D B U O N  
 H P A S T O L N E  
 T H O Z K L B T A

Kalean ikusten zaitudanean bihotza, ateratzeko zorian jartzen zait. Nire aurpegia, bero jartzen dela sentitzen dut. Nire gorputz osoa, sentsazio goxo batek betetzen du. Begiratzen didazunean nire barneko beroa gehitu egiten da eta lotsaturik ezkutatu egiten naiz.

**Negar egiteko txistek**

**Zein da munduko animalirik azkarrena?**  
*Oilo bat Somalia gurutzatzen.*  
**Eta bigarren azkarrena?**  
*Oiloaren atzetik doan Somaliarra.*

**Hilzorian**

**-Zatoz Miren, orain arte sekula aitortu ez nizun gauza bat esan behar dizut eta: duela gutxi ziren lagunik onenarekin engainatu zaitut.**  
**-Kontxo!, eta zergatik uste duzu pozoindu zaitudala!**



**OHARRAK**

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. Letra ulergarria eskatzen det. Tlf: 147948 (Joxe Mari)

**AGURRAK**

Otto, Galpartxo, bi Lasaoarrak, Laura...zuek ondo furgoneta eta kotxeekin !! Gu aldiz egunero izerdi patzetan Iraurgira ta lanerako gogorik eza

Bikote! Zorionak eta aurten ihauterietan ea zuzenago ibiltzen garen ... GORTU POLITT HORI !!!

Londoneko txoria: hemen ere zutaz oroitzen gera. Aupa neska!

Garibaldi! Kontuz! Txitxarrotoik bakailura tarte txikia zio!

Mofli! Hi haiz hi burugorra. Gari txikiarekin ezetz ahari proban ibili!

Xemy Thawro:  
HIL TA PAKIA!!

Patxi, Itziar eta Rubeni, animo eta eutsi lortuko dugu eta. Gurea da garaipena. Zumaiako jarrai.

Potrotaino natxiok! Ni ez nauk Freddy! Freddya Juanjo dek!

Dinosaurioen desagertzea azaltzeko teoria berri bat: aspertu eta erretiratu egin ziren!

Wilson!  
Gurekin jai daukak!  
Hiru akerrak

Nor da X? X.

**SALEROSKETAK**

Eskusoinu bat daukat salgai.96 baju ditu eta "Borsini" da bere marka.Egoera onean dago.Norbait interesaturik egon ezkerro dei nazala telefono honetara: 861811.

SUZUKI MAXI 50 saltzen dut. Urtebete inguru, km. gutxi, eta kondizio oso ona. Ordaintzeko erraztasunak. Tlf: 199267

**ALDIZKARI HONEN SALMENTA PUNTUAK**

- Jesuskoa
- Errota
- Ogi Berri
- Arkupe okindegia
- Alai janaridenda
- Aizpurua liburudenda
- Olano liburudenda
- Erkibe
- Nikol kafetegia
- Inpernupe taberna
- Zalla erretegia
- Foto Gar

**ARKO** erredakzioburu lanpostua bete behar du:

**Baldintzak:**

- 1- Kazetaritza eta herri komunikabideetan esperientzia.
  - 2- Euskara maila ona.
  - 3- Gidatzeko karneta.
- Arrasate ezagutzea eta harremanetarako gaitasuna ere baloratuko dira.

**Betebeharrak:**

Arrasate Press-eko zuzendari Arko medioan erredakzio buru

**Izen-ematea:** ARKO

Azoka 1,  
20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 770815.  
Epea: otsailak 15.

**ARGIA**



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93  
ZUMAIA

**SOLOZABAL AUTOESKOLA**



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenan
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416



# Lehiaketa

Argazki honetan agertzen den iturria non dagoen asmatzen dutenen artean, **Txapartegi gozotegiak** eskeinitako tarta eder bat zozketatuko degu.

Utzi zure erantzuna eta datuak Foronda, ONCEko kabina edo Txapartegi bertan **otsailaren 17a** baino lehen, eta zorte on!



Aurreko zenbakiko erantzuna era guztietakoa izan zitekeen: kioskorik ez zegoela orain, aurreko etxeak pixu gehiago dituela, eta abar.

5 erantzun bakarrik jaso genituen eta hauen arteko zozketan **Arritxu Manzidor** suertatu zen irabazle. Zorionak eta on egin!

Besteok badakizue, segi jolasten!